



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Jarduera Plana

2014-2015



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

AURKIBIDEA

Aurkezpena	4
1. Eragiketa estatistikoak	5
2. Azterketa estatistikoak	6
3. Ikerketa kualitatiboak	7
4. Kulturaren egoerari buruzko txostena	9
5. Tresna berriak: panelak	10
6. Bestelako azterketak	11
I. Eranskina. Laburpen-koadroa	12

Aurkezpena

Behatokiak ibilbide luzeko baliabideak dira, denbora iragan ahala aztertutako errealitateari buruzko jakintza metatzen dutenak. Horrela, Kulturaren Euskal Behatokiaren funtsezko balioetako bat 2006az geroztik egindako lana da, euskal kulturaren errealitateari buruzko hausnarketa eta edukiak bilduz, sistematizatuz eta sortuz. Ibilbide horretan, hasierako urratsak proiektuaren inguruan hausnartzea eta gero proiektua diseinatzea eta aurkeztea izan ziren, eta hortik, bigarren fasera igaro zen, Behatokiaren zutabe estatistikoa finkatzeko fasera, hain zuzen ere; azkenik, izaera estrategikoko azterlanetara dibertsifikatzeko beste fase batera pasa zen. Egindako lanari esker, KEBk eduki ugari eta askotarikoa eskain dezake.

Azken urteotan, informazio-sistema bat finkatu da, eta sistema hori are gehiago haziko da, informazioaren dimentsioari dagokionez nahiz azterketak behatutako errealitateen ñabarduretara eta berezitasunetara hurbiltzeko gaitasunari gagozkiola. Gainera, ikerketa kualitatiboen ildoaren bitartez, kultura-politikei buruzko egungo eztabaidetako gai erabakigarriei heldu zaie. Egia esan, esperientzia bera baliotzat har dezakegu, errealitatea ezagutzeko balio digulako, baina horrez gainera, etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko ere baliagarria delako, lanaren antolamenduari eta helburuei dagokienez.

Gaur egun, KEBk bi norabidetan kokatzen du bere arreta: batetik, estatistika-lan erregularraren eta ikerketa kualitatiboen kudeaketarekin jarraitzea, Behatokiaren informazio- eta jakintza-sistemaren ardatzak baitira; eta bestetik, behatokiak eskariei erantzuteko duen gaitasuna nahiz irekitzeko eta harremanak ezartzeko ahalmena indartzen ari diren lankidetza-tresna eta lankidetza-esparru berriak diseinatzea eta abiaraztea.

Horrela, behatokiak erronka horiek ezartzen dizkio bere buruari, errealitatea aldatzeko lehen urratsa errealitatea sakontasunez ezagutzea dela irizten baitio. Ondoren, 2014-2015eko lanaren alderdirik nabarmengarrienak deskribatuko ditugu.

1. Eragiketa estatistikoak

KEBk sustatzen eta kudeatzen dituen bi eragiketa estatistiko erregularrak «Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean» eta «Arte eta Kultura Industriari buruzko estatistika» dira.

❑ **Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean (hirugarren edizioa)**

Jada finkatuta dagoen bi urtean behingo eragiketa horrek (hirugarren edizioa izan da azkena, 2012ko datuekin) azterketa oso bat egiteko informazio ugari ematen digu, EAEn kulturean egindako gastu publikoaren bilakaera eta egoera ezagutzeko nahikoa ikuspegiarekin.

2014an, landa-lana eta azterketa- eta ustiaketa-lanak ixteaz gain, emaitzak hedatzeko produktuak ere landuko dira: txostena eta taula xehatuak. Nobedade gisa, KEBk hainbat lan-saio egingo ditu inplikaturako agenteekin, emaitzak aztertze eta hurrengo edizioaren inguruko iritziak, ekarpenak eta hobekuntza-proposamenak alderatzeko. 2015ean hurrengo ediziorako landa-lana abiaraziko da.

❑ **Arte eta Kultura Industrien Estatistika (laugarren edizioa)**

2013ko datuekin osatutako errolda-estatistika horren laugarren edizioaren landa-lana prestatzeko eta kudeatzeko lanari dagokio 2014an egingo den lana, eta EAEko kultura-sareko ordezkari ugari hartzen dute parte bertan (arte eszenikoaren, ikusmen-artearen, musikaren, liburuaren eta ikus-entzunezkoen sektoreetako 900 bat agentek).

2015ean emaitzak aztertze eta ustiatze lanak egingo dira, honako hedapen-produktu hauek prestatzeaz gain: zazpi txosten sektorial, ikuspegiak txostena, kulturaren adierazle nagusiak eta adierazleen kontsultarako emaitza-taulak.

2. Azterketa estatistikoak

Nabarmendu behar da KEBeko estatistika-enbor horretatik beste proiektu bat sortzen dela: sektore publikoko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen analisia. Eta beste organo batzuekin koordinatutako azterketen artean, kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren azterlana.

☐ **Erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen azterketa**

Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturen estatistika-lanak erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen aurrekontuei buruzko informazio xehea barne hartzen du. Erakunde horien profila askotarikoa da, bai beren espezializazioari dagokionez bai administrazioen parte-hartze mailari dagokionez. Erakunde talde garrantzitsu horren analisiak argitasuna emango dio kulturaren sektore publikoaren administrazio, lurralde eta sektorekako erretratuari.

☐ **EAEko kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren inguruko azterlana**

2015ean, EAEko kultura-enpresei eta kultura-enpleguari buruzko laugarren txostena egingo da, KEBek sortzen dituen estatistikez bestelako informazio-iturri batzuk erabiliz.

3. Ikerketa kualitatiboak

2010ean, kultura-politiketan lehentasunezkoak diren interes-gaiak ezagutzeko jomuga duten azterketa kualitatiboen ildo bat hasi zuen KEBk; azterketa kualitatibo horiek bestelako hainbat testuingurutara irekitako begirada dute, esplorazio-izaerakoak dira eta proposamenak planteatzen dituzte. Orain arte, ikerketa-ildoak hainbat gaitara zuzenduak izan dira, hala nola kultura-sorkuntza eta kultura-sareetara, finantzaketara, kudeaketa publikora, gizarte-ingurunera, ingurune digitalera eta kultura-kontsumora.

2014-2015eko azterketa berrien katalogoak lehentasunezko hiru interesgune ditu:

❑ Ikusleak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategia berriak

Ikusleak kultura-produkzioaren hartzaileak dira, kultura-produkzioaren helburua, eta horregatik, kultura-programazioa bideragarri egiten duten baliabide publiko eta pribatuak legitimatzen ditu ikusleen presentziak. Ikusleak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategiak azpimarratzea ezinbestekoa da krisialdi ekonomikoaren eta kultura-erabilera eta kultura-praktiken aldaketan ondoriozko une gogorretan. Izan ere, Europar Batasunean lehentasunezko azterketa-esparruetako bat dugu hori.

Ikerketaren helburua, horrenbestez, zera da, bestelako inguruneetan eta EAEn ikusleak sortzeko estrategia berritzaileak aztertzea eta eskari-politikak orientatzen dituzten hainbat esku-hartze mota eta gomendio proposatzea.

❑ Kultura-sektoreak eta paradigma digitalaren negozio-aukera berriak

Orain arte, ingurune digitalak kultura-sektoreetan duen eraginaren azterketari heldu dio Behatokiak 2010ean antolatutako kultura eta digitalizazioari buruzko lan-taldeekin, eta 2011n egindako digitalizazio-maparekin.

Esparru horretan sakontzea da jomuga, jarraian, paradigma digitalaren gakoak aztertzeko, ondoren, balio-katearen ikuspegitik kultura-sektorerako horrek ekar ditzakeen aukerak identifikatzeko, eta azkenik, sektoreetarako eta administrazioarako gomendioak proposatzeko.

❑ **Kulturarako sarbidean gertutasun-politikek duten eginkizuna: azterketa eta proposamenak**

Orain arte, gertutasun-politikekin zeharkako lotura duten bi azterketa egin ditu Behatokiak: kulturaren gizarte-itxuleraren ebaluazioari eta kulturaren kudeaketa publikoa aztertzeko ereduari buruzko azterketa, erabakiak hartzeko irizpideak eta mekanismoak hobetzen laguntzen duena. Gertutasun-politikei buruzko azterketak ekintza-erradioa zabaltzen du, arreta honako bi elementu hauetan jarritz: batetik, kulturarako sarbidea, eta bestetik, hein handi batean (baina ez soil-soilik) udalerriek gauzatzen dituzten politikak.

Bi zatitan egituraturatutako ikerketa planteatzen da: lehenik, kulturak duen gizarte-eginkizunaren inguruko hausnarketa teorikoa, eta bigarrenik, gertutasun-politiketarako ereduaren azterketa, udalerritik ertain eta txikiak gauzatzen dituztenak bereziki nabarmenduta (baina ez soil-soilik horiek). Horrelako politiken bitartez kulturarako sarbidea indartzen lagunduko duten proposamenekin amaituko da txostena.

2014an bigarren mailako iturriak aztertuko dira eta jardunbide egokiak identifikatuko dira, deskribatutako ikerketei dagokienez. 2015ean hiru azterketak osatu eta argitaratu egingo dira.

4. Kulturaren egoerari buruzko txostena **2014/2015**

KEB, EHUekin lankidetzan, kulturaren egoerari buruzko bi urtez behingo Txostena lantzen dihardugu. EAEn euskal kultura-errealitateak egun duen egoerari buruzko diagnostiko independente bat sortzea da lankidetzaren horren helburu orokorra, eta horren ondoren, dituen erronkak identifikatzea eta jardun-proposamenak iradokitzea. Laburbilduz, asmo handiko lana dugu, eta Behatokiak eta Unibertsitateak batera lan egiteko bidea irekitzen du.

Txostenaren zuzendaria Ramón Zallo jauna da, eta lau espezialistaz osatutako talde bat koordinatzen du, balio-katearen ikuspegitik kulturaren egoera aztertzeko: sorkuntza/ikerketa/prestakuntza (Eneko Lorente); ekoizpena/edizioa (Miguel Ángel Casado); banaketa/hedapena/erakusketa (Pablo Malo eta Kepa Sojo); ohiturak eta kontsumoa (Josu Amezaga).

Online inkesta bat egin da, sektore guztietatik datozen eta hainbat profil eta tipologiatakoak diren 100 aditu baino gehiagoren iritzia eta pertzepzioak edo irudipenak jaso ahal izateko. Kultura-esparruan eginkizun nabarmena duten agenteen artean aukeratu da lagina, eta sektore bakoitzeko sortzaileen, ekoizleen, kudeatzaileen, administrazio arduradunen eta analisten artean oreka lortzeko ahalegina egin da. Halaber, inkestaren emaitzak eta kulturaren etorkizuneko erronkak aztertzeko eztabaida-taldeak ere antolatuko dira.

2014an azterketaren edukiak eta metodologia diseinatuko dira, materialak, galde-sorta, inkesta-baliabidea eta abar prestatzeaz eta adituen iritzia biltzeko prozesua gauzatzeaz gain.

2015ean emaitzak aztertuko dira, lau eztabaida-talde dinamizatuko dira eta kulturaren egoerari buruzko 2014-2015eko txostena idatzi, argitaratu eta hedatu egingo da.

5. Tresna berriak: panelak

Behatokiaren berezitasunetako bat da erabilgarri izatea arduradun politikoentzat, sektoreetarako eta administrazioarako, egoera aztertzeari eta erabakiak hartzeari dagokienez. KEBk, bere funtzionamenduaren gaineko hausnarketatik abiatuta, eta batez ere, egungo testuinguruak eskatzen duena kontuan hartuz, agenteen inplikazioa indartzeko erronka hartu du bere gain, horiekiko harremanak biziagotuz, eta baita horien lan-prozesuak arintzeko, metodologiak txertatzeko eta egoerari buruzko informazioa emango duten emaitzak hedatzeko erronka ere. Panel edo luzetarako inkestek premia horiei eraginkortasunez erantzuten diete.

□ **Kultura-ohiturei eta kultura-kontsumoari buruzko panela**

Kultura-ohiturei eta kultura-praktikei buruzko azterketa KEBren lehentasunezko helburuetako bat izan da 2006an martxan jarri zenetik. Biztanleriaren kultura-ohituren deskribapenak egiten dituzten hainbat estatistika-iturri daude. Sektoreen araberrako egoera, adinen araberrako ereduak, generoen araberrako lehentasunak eta abar ezagutzen ditugu. Are gehiago, beste testuinguru batzuekiko alderaketak ere ezar ditzakegu, esate baterako, Europako beste herrialdeekiko edota beste autonomia-erkidegoekiko konparazioak, besteak beste.

Luzetarako azterketa edo Panel bat proposatzeko arrazoiek honako bi interes hauetan dute sorburua: batetik, kultura-ohiturak zehazten dituzten inguruabar eta eragileetan sakontzea, eta bestetik, bizitzan zehar gertatzen diren eta kultura-praktikekin lotutako aukeretan, zaletasunetan eta maiztasunetan eragina duten aldaketak aztertzea.

□ **Arteei eta kultura-industriei buruzko panela**

Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikak EAEko kultura-sektoreen egoera bi urtean behin aztertzea ahalbidetzen du. Egoerari buruzko informazioa izateko eskaria dela eta, panel bat sortu nahi izan da, kultura-agenteek beren negozioaren martxari eta etorkizuneko itxaropenei buruz dituzten pertzepzioak hots, egoerari buruz duten ikuspegia jasotzeko. Oso informazio mota erabilgarria da, dagoeneko eragiketa estatistiko zabalaren bitartez jasotzen diren datu errealak areagotzen eta testuinguruan jartzen ditu.

2014an bi panelen metodologia eta edukiak diseinatuko dira. Eta 2015ean abian jarriko dira, eragiketa hobetzeko eta eragiketaren bideragarritasuna ziurtatzeko proba pilotu jakin batzuk egin eta gero.

6. Bestelako azterketak _____

☐ **Estatistika-eredu eta adierazle berrien azterketa eta euskal kulturari buruzko estatistika-ziklorako proposamena 2014-2016** _____

Estatistika-esparruaren diseinua Behatokiaren ekintzaren funtsa izan zen, erakunde hori 2006an abiarazi zenez geroztik. Hori baino lehen, nazioarteko eta EAEko egoera aztertzeke bi txosten egin ziren, eta EAErako estatistika-esparrurako lehen proposamena idazteko erreferentzia gisa balio izan zuten aurreko bi txosten horiek. Nazioarteko beste behatoki batzuetako arduradunek eredu hori egiaztatu zuten.

Harrez geroztik, askotariko estatistika eta azterketak garatuta hezurmamitu da esparru hori. Testuinguruan gertatutako aldaketak, Europar Batasunaren estrategia eta hasierako ereduaren ebaluazioa bera direla-eta, eredu berri bat proposatzea ezinbesteko bihurtu da; beraz, prozesu horri hasiera 2014an emango zaio eta 2015ean amaituko da.

☐ **Kultura-baliabideen katalogoa** _____

Kulturklik, euskal kulturaren gune elkarreragilea, apurka-apurka hazi eta eduki ugari metatzea lortu duen informazio-hedapenerako leihoa da. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, besteak beste, kultura-baliabideen helbide-aurkibidea. Kulturaren Euskal Behatokiak helbide-aurkibide hori antolatuko du, bilaketak errazteko eta duen informazioaren kudeaketa hobetzeko. Horretarako, direktorioaren egitura diseinatu da eta agenteak txertatzeko irizpideak eta protokoloak lantzen gabiltza.

☐ **Sektore-eskaeren araberako txostenak 2014-2015** _____

Behatokiak sektoreek egindako azterlan-eskaerak jasotzen ditu eta jasotako proposamenetatik, 2015ean egingo diren 3 txostentzako azterketa-esparru, -tematika eta -metodologia espezifikoak zehaztu eta finkatu ahal izango dira.

Laburpen-taula: egitekoak-egutegia

	2014	2015
1. Eragiketa estatistikoak		
Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren 2012 (hirugarren edizioa)	Txostena ustiatzea, lantzea eta argitaratzea eta aurkezpen-saioak egitea	Landa-lana, 2014ko edizioa
Arteak eta Kultura Industriak 2013 (laugarren edizioa)	Landa-lana	Emaitzak ustiatzea, lantzea eta argitaratzea
2. Eragiketa estatistikoak		
Erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen azterketa	Emaitzak ustiatzea eta lantzea	Emaitzen txostena argitaratzea
EAEko kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren inguruko azterlana.		Emaitzak ustiatzea, lantzea eta argitaratzea
3. Ikerketa kualitatiboak		
Ikusleak erakartzea eta fidelizatzea	Bigarren mailako iturriak aztertzea	Garatzea eta argitaratzea
Paradigma digitalaren negozio-aukerak	Bigarren mailako iturriak aztertzea; jardunbide egokiak identifikatzea	Garatzea eta argitaratzea
Kulturarako sarbidean gertutasun-politikek duten eginkizuna	Bigarren mailako iturriak aztertzea	Garatzea eta argitaratzea
4. Kulturaren egoerari buruzko txostena 2014-2015		
Diseinua eta garapena	Diseinatzea, galde-sorta eta inkesta-baliabidea lantzea; adituen iritzia jasotzeko prozesua.	Eztabaida-taldeak dinamizatzea; txostena lantzea eta hedatzea
5. Tresna berriak: panelak		
Ohiturei eta kontsumoari buruzko panela	Metodologia eta edukiak diseinatzea	Pilotua eta martxan jartzea
Arteei eta kultura-industriei buruzko panela	Metodologia eta edukiak diseinatzea	Pilotua eta martxan jartzea
6. Bestelako azterketak		
Estatistika-eredu eta adierazle berrien azterketa eta kulturari buruzko estatistika-ziklorako proposamena	Bestelako esparruak aztertzea eta egungo premiak identifikatzea	Berrikustea eta estatistika-zikloa proposatzea
Kultura-baliabideen direktorioa	Egitura proposatzea	Irizpideak eta protokoloak proposatzea
Hiru azterketa sektore-eskaeretatik abiatuz		Hautatzea eta garatzea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA